



## 178 IKASTETXEK PLANTO EGIN DIOGU 3. MAILAKO AZTERKETA INPOSATUARI

Aste honetan zehaz hainbat eta hainbat ikastetxeetan egiten ari diren mobilizazioak direla medio eta 3. mailako azterketa egiteko azken eguna denez, gaurkoa, ondorengo irakurketa luzatu nahi dugu:

lazko pilotajea ezin izan zuen behar bezala burutu Hezkuntza Sailak, dozenaka ikastetxetan planto egitea erabaki genuelako. Planto egitea arrazoi argiengatik erabaki genuen:

- 3. mailako azterketa LOMCEk hala zehazten duelako egin behar da EAEn
- Heziberri planak 3. mailako azterketa asumitu egiten du
- Azterketa hau egiteak LOMCEren aplikazioan sakontzea ekartzen du

Hau horrela, aurten, berriz ere, planto egitea erabaki genuen. Eta espero ez genuen erantzuna izan du gure dinamikak. Gaurko egunez jasotako datuen arabera 178 ikastetxe dira 3. mailako azterketa egingo ez dutenak. 178 ikastetxe dira Hezkuntza Sailak esandakoa beteko ez duten ikastetxeak. Sareei erreparatu gero, datua oso positiboa da:

Sare publiko + Ikastolak + Kristau Eskolak = Planto %35 (Lehen Hezkuntzako ikastetxeak hartuta)

**Sare publiko + Ikastolak = Planto %45 (Kristau Eskolek azterketa hauek zuzenean asumitzen baitituzte)**

Erabaki erabat inportantea dela uste dugu eskola komunitateak hartutakoa. Irakasleak eta batez ere familiak elkarlanean aritu dira planto antolatu eta azterketa ez egiteko alternatibak bilatzen. Emandako dozenaka hitzaldi eta egindako ehunka bilerek beren fruituak eman dituzte.

Hala ere, **salatu nahi dugu Cristina Uriartek izandako jarrera**. Berriz ere informazioa eman gabe aritu da; gezurretan aritu da; ikastetxetara informazio kontrajarria bidali du, hala izan den kasu gutxietan; zuzendaritzak ez ditu informatu... Duela hilabete batzuk azterketa hau egitea ikastetxeen esku gelditzen zela jakin arazi zuen. Hau da, ikastetxeak erabaki zezakeela azterketa egin edo ez. Azken asteetan, ordea, bestelako albiasteak heldu dira ikastetxetara: Uriarteren sailak ikastetxeei pasa die ardura eta nahiz eta 3. mailako azterketa hau ez egin, antza, 3. mailako azterketa horri dagokion informea osatu beharko dute.

Hau da, oraingoan behartu nahi izan ditu irakasleak LOMCEren arabera azterketa horren informea betetzera. Berriz ere, mehatxua irakaslegoaren gainean jarritz.

HPT-tik LOMCEk inposatu nahi digun eta Heziberri asumitzen duen ebaluazio sistemaren kontra gaude. Aurten 3. mailako azterketa dena, datorren urtean 6. mailakora luzatuko da, DBH 4. mailara eta abar eta abar. Hori dela eta, erroetan dago gure kezka. Azterketa puntualetatik harago, ebaluazio sistema bera jarriko dugu kolokan.

Beraz, 178 ikastetxe horietan eta hezkuntza eragileen artean sortutako baldintzak baliatu eta planto dinamikarekin jarraitzeaz gain, bestelako ebaluazio sistema baten inguruko eztabaidari ekingo diogu. **Ikasle, hezitzaile, familia eta herritarrekin orokorrean, gure hezkuntzak behar duen ebaluazio ereduaren inguruan eztabaidatu, adostasunak bilatu eta eraikuntzari ekin nahi diogu aurrerantzean.**

